HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5460

162/2008 DEKRETUA, irailaren 23koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatearen izena aldatzeko baimena ematen duena.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak Filologia, Geografia eta Historia Fakultatearen izena aldatzeko egin duen proposamena aztertu da.

Unibertsitate-zentroen izena bertan ematen diren irakaskuntzei lotuta egon da, oro har. Gaur egungo izendapena ez da nahikoa, Zentroan zer ikertu eta irakasten den adierazteko. Hori dela eta, izaera orokorreko izendapena hautatzen da, Fakultate honetan ematen eta emango diren titulu guztiak jasotzeko; horregatik guztiagatik, Unibertsitateak eta Unibertsitate zentroak sortzeari buruzko apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretuaren 2.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2008ko irailaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Jarraian agertzen den unibertsitate-zentroari izena aldatzeko baimena ematen da: Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea zena, aurrerantzean Letren Fakultatea izango da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko irailaren 23an.

Lehendakaria.
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5460

DECRETO 162/2008, de 23 de septiembre, por el que se autoriza el cambio de denominación de la Facultad de Filología y Geografía e Historia / Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Vista la propuesta del Consejo Social de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea de cambio de denominación de la Facultad de Filología y Geografía e Historia / Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea.

Teniendo en cuenta que las denominaciones de los Centros Universitarios, con carácter general, están vinculadas con el nombre de las enseñanzas que en los mismos se imparten y que la denominación actual para representar la naturaleza docente e investigadora que se desarrolla en el Centro se manifiesta insuficiente, se opta por una denominación de naturaleza genérica y capaz de abarcar todas las titulaciones que imparte y puede impartir esta Facultad; por lo cual y en virtud del artículo 2.4 del Real Decreto 557/1991, de 12 de abril, sobre creación de Universidades y Centros Universitarios y a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 23 de septiembre de 2008

DISPONGO:

Artículo único.– Se autoriza el cambio de denominación de la Facultad de Filología y Geografía e Historia / Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea por el de Facultad de Letras / Letren Fakultatea.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.